

# Lehen hizkuntza eta ingurune euskaldunaren eraginaren inguruko ikerketa

EGILEA: Eneritz Larreta Uzkudun

ZUZENDARIA: Mari Jose Ezeizabarrena

Euskal Ikasketak

2020-2021

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan hau ikerketa saiakera txiki bat bezala planteatu dut. Testuinguru soziolinguistiko zehatz batean, Mutrikun, interes zientifikoa duen ikerketa galdera hauek erantzutea izan da lanaren helburua. Batetik, ea 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan lehen hizkuntzak eragina duen edo ez. Bestetik, ea 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan testuinguru soziolinguistiko euskalduna izateak eragina duen edo ez. Ikerketa galdera hauen oinarrian dagoen ideia honako da, ea lehen hizkuntzak sortu ditzaken desberdintasunak testuinguru soziolinguistiko euskaldunak berdindu ditzaken.

Asmo horrekin, MAIN prozedura erabiliaz Mutrikuko Goizeko Izarra ikastolako 4-5 urte bitarteko haurren euskarazko ekoizpen datuak jasotzea erabaki nuen. Datu bilketa ekoizpenen birkontaktak grabatuaz egin da. MAIN tresnaren egokitzapenak zehaztasun handiaz egin dira, beti ere Gagarina et al. (2019) egileen argibide eta proposamenak kontuan hartuaz. Datu bilketaren oinarrian daude, parte hartzailearekiko harremana eta birkontaktetarako erabili den material eta prozedura zehatza.

Ikerketa honetarako haurren hizkuntz gaitasunaren inguruko ikerketa eta lanak oinarri bezala hartuak izan dira. Hona hemen lanean zehar aipatuko diren hainbat aurrekari: Almgren et al. (2008), Barreña eta Garcia (2009), Ezeizabarrena et al. (2009), Barreña (2012) eta Manterola (2012).

Ikerketa galderak erantzuteko asmoarekin haurren euskarazko ekoizpenetan aztertuko diren neurgaiak zehaztu dira: ekoizpenen luzera, ekoizpenen konplexutasun narratiboa, ekoizpenen osagai lexikoa eta ekoizpenen osagai gramatikala. Behin neurgaiak zehaztu ondoren, bakoitzari zegozkion aurreikuspenak egin dira. Gero, ekoizpenetako birkontaktako grabaketak aztertu dira neurgai bakoitzaren emaitzak ateratzeko. Haurren euskarazko ekoizpenetan aurkitu diren emaitzak neurgai bakoitzari dagokion tauletan zehaztuak izan dira. Lehen neurgaiari dagokionean, ekoizpenetako hitz kopuruaren batz bestekoa 67-68 hitz izan dira. Bigarren neurgaiari dagokionean, emaitzen batz bestekoa 7-8 puntu izan dira. Hirugarren neurgaiaren emaitzei dagokionean, haur bakoitzak 2-3 hitz erabili ditu batz beste beren ekoizpenetan. Azken neurgaiari dagokionean, ekoizpenetan ergatiboaren erabilera zuzenaren batz bestekoa %69 izan da. Ondoren, neurgai bakoitzarekin espero ziren aurreikuspenak emaitzekin alderatuaz eztabaidarako aukera izan dira.

Ikerketaren ondorio gisa esan daiteke, MAIN tresna erabiliaz Mutriku herriko 4-5 urte bitarteko haur hauengan lehen hizkuntzak sortu ditzaken desberdintasunak testuinguru soziolinguistiko euskaldunak berdindu ditzakeela.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	4
2. Aurrekariak .....	5
3. Ikerketa .....	6
3.1. Testuinguru soziolinguistikoa .....	6
3.2. Parte-hartzaileak .....	9
3.3. Tresna .....	11
3.4. Datu bilketa .....	12
3.4.1. Parte hartzaileekiko harremana .....	12
3.4.2. Materiala .....	13
3.4.3. Prozedura .....	14
3.5. Neurgaiak .....	16
3.5.1. Ekoizpenen luzera .....	16
3.5.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa .....	16
3.5.3. Ekoizpenen osagai lexikoa .....	17
3.5.4. Ekoizpenetako osagai gramatikala .....	17
3.6. Aurreikuspenak .....	18
3.6.1. Ekoizpenen luzera .....	18
3.6.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa .....	18
3.6.3. Ekoizpenen osagai lexikoa .....	19
3.6.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera .....	19
3.7. Emaitzak .....	21
3.7.1. Ekoizpenen luzera .....	21
3.7.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa .....	22
3.7.3. Ekoizpenen osagai lexikoa .....	23
3.7.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera .....	24
3.8. Eztabaida .....	25
3.8.1. Ekoizpenen luzera .....	25
3.8.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa .....	27
3.8.3. Ekoizpenen osagai lexikoa .....	29
3.8.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera .....	32
4. Ondorioak .....	34
5. Bibliografia .....	35
6. Eranskinak .....	37

## 1. Sarrera

H1 eta H2ren (goiztiarra ere) artean aurkitu izan diren aldeak, askotan H2dunek duten esperientzia edota hartu-eman urriagoarengatik azaldu izan dira. Baina horretan familiaz kanpoko testuinguru soziolinguistikoa ere garrantzizkoa da, adibidez, eskola (Almgren et al, 2008: 240). Gradu Amaierako Lan hau ikerketa saiakera txiki bat bezala planteatu dut. Testuinguru soziolinguistiko zehatz batean interes zientifikoa duen ikerketa galderak erantzutea izan da lanaren helburua.

Nire lan hau ondorengo bi ikerketa galdera hauetan oinarritu da:

- a) 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan lehen hizkuntzak eraginik duen.
- b) 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan testuinguru euskaldunak eraginik duen.

Ikerketako galderak orokorrak diren aldetik, nire ikerketa honetan lagin txiki bateko haurren birkontaketa ekoizpenek emandako emaitzekin erantzuten saiatuko naiz. Hau da, testuinguru zehatz bateko haur talde jakin bateko emaitzak baliatuaz ikerketa galderak erantzun dira. Beraz, oso testuinguru zehatz bateko erantzunak dira eta ez dira erantzun orokor gisara ulertuko.

Ikerketa galderak erantzuteko asmoarekin, MAIN prozedura erabiliaz Mutrikuko Goizeko Izarra ikastolako 4-5 urte bitarteko haurren euskarazko ekoizpen datuak jasotzea erabaki nuen. Kontuan izanik, parte hartzaileen artean, etxean entzuten dituzten hizkuntzen araberrako familia mota desberdinak daudela. Lanaren oinarri diren ondorengo ikerketa galderak erantzuteko datu egokiak izango direlakoan.

Ikerketa hau aurrera eramateko orduan aztergai izan den haur taldearen hainbat ezaugarri hartu ditut kontuan, beren euskarazko ekoizpenetan eragina izango dutelakoan. Besteak beste, parte hartzaileen adinak, etxez kanpoko testuingurua eta haurren euskal profila. Haur hauen beste ezaugarri bat, elebitasun goiztiarreko populazioaren parte direla da. Eskolaratzean, etxetik euskaldunak ez diren haurrak, lehen hizkuntzarekin batera euskaraz hezi dira. Murgiltze goiztiarraren bidez, bizitzako lehen urteetatik euskarazko testuinguru batean eskolaratzen dira.

Elebiduntasun kontzeptuari dagokionean, hona hemen ikerketan zehar agertuko diren kontzeptuen azalpena, beti ere kontzeptu hauek haurrek euskaraz duten elebiduntasuna kontuan izanik. Haurren jaiotzeko lehen urteetan euskara hizkuntza

bakarra dutenean, euskal elebakarrak direnean, euskara H1 dutela erabili da. Haurra jaiotzetik aldi berean bi ama hizkuntzatan hezi bada, hau da, euskara eta beste hizkuntza bat, euskara 2H1 duela erabili da (Barreña, 2012: 71). Azkenik, etxeko hizkuntzetako bat bera ere ez bada euskara, hau da, eskolako murgiltze goiztiarraren bidezko harremanaz badu euskara, H2g euskara duela erabili da.

Ikerketarako datu bilketarako prozedurari dagokionean, ipuin kontaketa aukera izan daiteke horren adierazgarriak diren datu baliotsuak biltzeko. Hainbat ikerketek ipuin kontaketa metodo bezala erabiltzeak datu interesgarri eta baliotsuak lortzeko balio duela erakutsi izan dute, hona hemen adibide batzuk: Almgren et al. (2008), Ezeizabarrena et al. (2009) eta Manterola, 2012.

MAIN (Gagarina et al, 2019) *narrazioak hizkuntza askotan neurtzeko tresna*, narrazioa eta elebiduntasuna alderdiak dituen aldetik nire ikerketarekin bat egiten duen tresna dugu. Gagarina et al. (2009) tresna modu praktikoa batean eta zehaztasun handiarekin definitua dute. Oinarri zehaztu bat izateak abantaila ematen dit ikerketa egiterako orduan. Hau da, jarraitu beharreko urratsak zein diren eta hauek aurrera eramateko prozedura zein den ezagutzea laguntza handia da.

## **2. Aurrekariak**

Mutrikun aurrera eramanean den ikerketa hau egin baino lehen haurren hizkuntz gaitasunaren inguruan eginiko ikerketa batzuk ezagutuko ditugu.

Batetik, Almgren et al. (2008) aldi bereko elebiduntasunean euskararen jabetzea ikertu zuten lana dugu. Egile hauek baieztatu zuten, haur hezkuntzan aldi bereko elebidun direnek, euskara garapenean H1 euskara duten haurren garapenarekin konparatuaz eredu antzekoak lortzen dituztela.

Bestetik Barreña eta Garcia (2009) laneko helburua, euskara bereganatzen ari diren haurren garapena ikertzea da, elebakarengan eta elebidunengan modu berdinean gertatzen ote den aztertuaz. Bestalde, Barreñak (2012), haur euskaldunek hizkuntzaz jabetzeko jarraitzen duten prozesua deskribatzen duen lanean hitz hauek topatu ditut: “hizkuntza bakarraren jabetze-prozesua eta bi lehen hizkuntzena prozesu bera dira funtsean baldin eta hizkuntza biak txiki-txikitatik, bereizita eta maiztasun handiaz entzuten badira” (Barreña, 2012:71). Baina Barreñak (2012) bere lanean garapen desberdina aipatzen du ondorengo bi elebitasun egoera hauetan. Lehenengo egoera haurra

bigarren hizkuntzaren bat entzuten eta garatzen hasten bada lehen hizkuntzaz jabetu eta gero. Bigarren egoera, haurra bi hizkuntzak oso txikitatik, antzeko maiztasunez eta bereizita entzuten hasten bada.

Bestalde, Ezeizabarrena et al. (2009) aditz-morfologiaren eta gramatika-kasuen garapena ikertu zuten lanean aipatzen da H1 eta H2ren artean aldeak handiagoak direla. Nahiz eta zenbait garapen aro berdintsuak izan, ezberdintasunak daude ekoizpenen luzeran, garapenaren erritmoan eta lortutako mailan.

Manterolaren (2012) lanean helburua gaztelania H1 izanik euskara H2 gisa ikasi duten 5 urteko haurren gaitasun diskurtsiboak aztertzea izango du. Hona hemen lanarekin lortutako ondorioetako bat: “Baina taldeak konparatzen hasita, H1ean ez dugu ikusi H2an baino gaitasun aurreratuagorik 5 urterekin” (Manterola, 2012:150).

Ikerketa galderen oinarrian dagoen ideia ondorengoa da: lehen hizkuntzak sortu ditzaken desberdintasunak ea testuinguru soziolinguistiko euskaldunak berdindu ditzaken. Haurren ekoizpenetan bi motatako indarrak aurkituko direla espero da, indar bateratzailea eta indar desberdintzailea. Batetik, indar bateratzaile bat aurkituko dugu, ekoizpenetako neurgaien emaitzak berdinduko dituena. Hain zuzen ere, Mutriku herriko herritarren artean sozializazio tresna euskara izatea. Hau da, familiaz kanpoko testuinguru soziolinguistiko euskalduna izateak nolako eragina duen haurren euskarazko ekoizpenetan. Bestetik, indar desberdintzailea, ekoizpenetako neurgaien emaitzak desberdinduko dituena. Hau da, haur bakoitzaren euskaldun profilak ea nola eragiten duen haurren euskarazko ekoizpenetan.

### **3. Ikerketa**

Atal honetan ikerketa aurrera eramateko orduan jarraitu den metodologiaren inguruko zehaztapenak egingo ditut.


#### **3.1. Testuinguru soziolinguistikoa**

Mutriku, kostako herri euskalduna, Bizkaiarekin mugan dagoen Gipuzkoako Debarrenan kokatuta dago. Demografikoki Mutriku herri txikia dela esan dezakegu, *Eustat*-eko datu estatistikoaren arabera 2020.urtean 5.314 biztanle zituen (Ikuspegi, 2020). Mutrikuko portua izan da eta gaur egun ere jarraitzen du izaten, mutrikuar askoren lantoki. Nahiz eta gaur egun inguruko industriak ere lanpostu asko sortu dituen.

Arrantzak atzerritar askoren etorrera ekarri du Mutrikuko herrira. *Ikuspegi-k, Immigrazioaren Euskal Behatokiak*, argitaratutako datuen arabera 2020.urtean jatorri atzerritarreko biztanleriaren ehunekoa %9.1 (484 pertsona) izan zen. Atzerritar hauen jatorri nagusienak ere ikertu zituen *Ikuspegi*: Europa (90), Afrika (196), Amerika (167) eta Asia (29). Kontinente bakoitzaren barruan atzerritarren jatorri nagusienak ere aipatzen dira: European Bulgaria (38) eta Errumania (19), Afrikan Senegal (124) eta Maroko (60), Amerikan Bolivia (25), Kolonbia eta Kuba (12), Argentina eta Ekuador (10), Asian Pakistan (15) (Ikuspegi, 2020).

Aurreko datu guzti hauek lan honetan zehar garrantzia izan duten bi ideia ezagutu eta zehazteko balio digute. Batetik, Mutriku herri txikia dela eta bestetik, jatorri atzerritarreko populazioaren ehunekoa handia dela. Azken datu hau konparatu ahal izateko *Ikuspegi*ren arabera, EAEn jatorri atzerritarreko populazioaren ehunekoaren batz bestekoa %10,9 da. (Ikuspegi, 2020)

Testuinguru soziolinguistikoaren barruan ikerketa galderak erantzuteko garrantzi handikoa da Mutriku herrian euskarak zer-nolako presentzia duen jakitea. Horretarako *Soziolinguistika Klusterrak* eskainitako datuak ezagutuko ditugu. Lehenengo, Mutrikuko hizkuntz gaitasunaren datuak emango dira (1. irudia) eta ondoren Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak bildutako datuak aipatuko dira. (2. eta 3. irudiak). *Soziolinguistika Klusterrak* ondorengo hitz hauekin deskribatzen du neurketak kale erabileran oinarritu izanaren zergatia: “herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea [...]erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena” (Soziolinguistika Klusterra, 2017: 2).



Mutrikuko hizkuntz gaitasunari dagokionean, *Soziolinguistika Klusterrak* 2011. urtean eskainitako datuak ditugu 1.irudiko grafiko honetan ikusten ditugunak. Mutrikuarren %80.7ak euskalduntzat dute euren burua eta %8.5ak soilik erdalduntzat (Soziolinguistika klusterra, 2011).




Euskararen erabilerari dagokionean hona hemen *Soziolinguistika Klusterrak* 2017. urtean Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak eginiko azterketan topatu ditudan datuak. Batetik, hurrengo grafiko honetan, 2. irudian, Mutrikuko hizkuntzen kale-erabilera orokorraren datuak ikus ditzakegu (Soziolinguistika klusterra, 2017).



Kale-Neurketa honetan lagina guztira 3.185koa izan da, hau da, 3.815 mutrikuarrek hartu dute parte neurketa honetan. Horietatik 2500 pertsona (78.5%) euskaraz aritzen dira kalean, 566 pertsona (17.8%) gaztelaniaz eta 119 pertsona (3.7%) beste hizkuntzaren batean.


Bestetik, 3. irudian ikus daitekeen grafikoan, Mutriku herriko hizkuntzen kale-erabilerari dagozkion datu estatistikoak ditugu, adinaren arabera banatuak (Soziolinguistika klusterra, 2017).



3.irudiko grafikoaren arabera Mutrikuko haurren (2-14 urte) %91.2ak erabiltzen du euskara kalean, hain zuzen ere haurren gehiengoak. Aldiz, helduen (25-64 urte) kasuan, %69.3 euskara erabiltzen dute kalean. Kale erabilerari dagokionean, bi taldeen artean aldeak nabari dira.

Azkenik, interesgarri iruditu zaidan beste datu bilketa bat da honakoa. Nire ikerketaren interes-gunea haurrak diren aldetik, datu bilketa honetan (Soziolinguistika Klusterra, 2017), hizkuntzaren erabileran haurren presentziaren eragina jasotzen da.

#### 4.irudia. Haurren presentziaren eragina hizkuntzaren erabileran.



4.irudiko grafiko hauen arabera, haurren artean bildutako laginaren %95.4ak hitz egiten du euskaraz eta %4.2ak gaztelaniaz. Mutrikun nagusien artean hitz egiten den hizkuntzari dagokionean, %72.3 euskaraz mintzatzen da eta %23.2 gaztelaniaz. Aldiz, haurrak eta helduak nahasian daudenean %84.9 euskaraz mintzatzen da eta %11.4 gaztelaniaz.

Mutrikuko haurren %91.2ak euskara erabiltzen du kalean eta %95.4 igotzen da haurren artekoa denean sozializazioa. Mutrikuko helduen %69.3 euskara erabiltzen du eta %72.3 igotzen da helduen artekoa denean sozializazioa. Beraz, kale erabilera neurketek erakutsi dutenaren arabera, euskararen presentzia oso altua da Mutrikuko kaleetan.

### 3.2. Parte-hartzaileak

Lan honetan oinarri hartu den datu bilketa egiteko erabili den haur taldea 16 hurrek osatzen dute. Mutrikuko eskola honek D ereduko irakaskuntza soilik eskaintzen du, beraz haur guztiak D ereduko irakaskuntzan matrikulatuta daude. Haur Hezkuntzako 4 urteko gelan gaudenez ingeleseko ordu batzuk ere badituzte beraien eskolako egunerokotasunean. Gaztelaniaren presentzia oso urria da, irakaskuntza guztia euskaraz eramaten da aurrera eta haur batzuen artean erabiltzen dute baina oso

gutxitan. Eskola honetako jardunari dagokionean 1. taulako azaltzen den egunerokotasunean honakoa da hizkuntzen presentzia.

1. taula: Haur Hezkuntzako 4 urteko gelako ordutegia					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00-9:30					
9:30-10:00		Ingelesa	Musika		
10:00-10:30					
10:30-11:00	Ingelesa				Ingelesa
11:00-11:30					
11:30-12:30					
14:00-14:30					
14:30-15:00			Ingelesa		
15:00-15:30	Laguntza			Ingelesa	
15:30-16:00	irakaslea				

Ikasleen arteko harremanetarako hizkuntza, orokorrean, euskara da. Badago haur bat ez dena oso ondo moldatzen euskaraz, hori dela eta askotan, gaztelaniara jotzeko ohitura du. Gainerako haurrak ohitura honetaz jabetu eta haur honekin ulertzeko zailtasunak ikusten dituztenean, hauek ere gaztelaniara jotzen dute haur honekin elkarrizketa bat aurrera eraman ahal izateko.

Parte hartzaileen ezaugarriak zehazteko asmoarekin, 2. taulan ikerketa honetarako esanguratsuak izango diren ezaugarriak aipatu dira. Taula honetako lehen zutabean, haurren ezizenak azalduko dira (zenbakituak), bigarren zutabean haurraren adin-tartea hilabeteetan adierazia eta zaharretik gazteenera ordenatua. Hirugarren zutabean generoa, laugarren zutabean, etxeko hizkuntzetako bat eta bostgarren zutabean, etxeko hizkuntza bat baino gehiago dituzten kasuan, bigarren etxeko hizkuntza. Seigarren zutabean haur bakoitzaren euskal profila zein den aipatu da: H1, 2H1 edo H2g eta azken zutabean haurraren izaera deskribatuko da, hizketa jarioa kontuan hartuz: hiztuna, ez hain hiztuna (-) edo isila kontzeptuak erabiliaz.

2. taula: Parte hartzaileen zehaztasunak						
Parte hartzaileak	Adina (Hilabeteak)	Generoa	Etxeko hizkuntza	Etxeko 2.hizkuntza	Euskal profila	Izaera
1	62	Mutil	Euskara	-	H1	Isila
2	61	Neska	Gaztelania	-	H2g	Hiztuna
3	61	Neska	Euskara	-	H1	-
4	61	Neska	Euskara	-	H1	Hiztuna
5	60	Mutila	Wolofera	-	H2g	-
6	59	Mutila	Euskara	-	H1	Isila
7	57	Neska	Euskara	-	H1	-
8	57	Neska	Euskara	Gaztelania	2H1	Hiztuna
9	57	Neska	Euskara	-	H1	-
10	56	Neska	Euskara	Gaztelania	2H1	-
11	56	Mutila	Euskara	Gaztelania	2H1	Isila
12	56	Neska	Euskara	-	H1	Isila
13	56	Neska	Euskara	-	H1	Hiztuna
14	54	Mutila	Gaztelania	Arabiera	H2g	Isila
15	51	Neska	Euskara	-	H1	Hiztuna
16	51	Mutila	Euskara	-	H1	Isila
<b>Bataz bestekoa</b>	57 hilabete	N %62.5 M %37.5	Eusk.%81.25 Gaz. %12.5	Gaz.%18.75 Beste hizk.	H1 %62.5 2H1 %18.75 H2g %18.75	

### 3.3. Tresna

Ikerketa hau egiteko oinarri bezala hartu den laginaren datu bilketa MAIN (Multilingual Assessment Instrument for Narratives) prozedura erabiliaz egin da. (Gagarina et al, 2019). MAIN, haurren narrazioetako trebeziak neurtzeko diseinatu izan da. Tresna honen helburu nagusia, oso txikitatik hizkuntza bat edo gehiago bereganatzen dituzten haurren narrazioetarako trebeziak neurtzea da (Gagarina et al, 2019: 1). Tresna honek erakutsi du, beste hizkuntza batzuetan haurren narrazio gaitasuna neur daitekeela ipuin kontaketa erabiliaz.

MAIN 3-10 urte bitarteko haurrentzat garatu zen hasiera batean eta nire ikerketako parte-hartzaileen adin tartea MAINek aipatutako adin tarte horretan kokatzen da. MAINek haurrek narrazioak ulertzeko eta ekoizteko duten trebetasuna neurtzeko aukera ematen du. Horretarako, hainbat modalitate proposatzen dituzte: eredu-ipuina, birkontakteta eta kontakteta.

Nire ikerketarako birkontaketa prozedura erabili dut, kontuan harturik parte hartzaileen adin tartea. Haurren ekoizpenetako hizkuntz neurgai zehatz batzuk ikertu nahi diren aldetik ekoizpenak mamitsuak izatea abantaila izango zait. Birkontaketa erabiliaz haurren ekoizpenak emankorrak izango direla aurreikusten dut. Haurrak helduaren bertsioa eredutzat izanik, abiapuntutzat har dezake bere ekoizpena burutu ahal izateko. Adin-tarte honetan abiapunturako oinarri bat izatea garrantzi handikoa iruditzen zait. Haurrari ipuina hutsetik ekoizteak arazo eta buruhauste handiagoak emango dizkiola aurreikusten dut.

### **3.4. Datu bilketa**

Atal honetan, ikerketa honen oinarrian dauden datuak biltzeko jarraitu diren urrats zehatzak azalduko dira. Batetik, parte hartzaileekiko harremana nolakoa izan den. Bestetik, datuak biltzeko erabili den material zehatza deskribatuko da. Azkenik, neurgaiak aztertu ahal izateko zein prozedura zehatz jarraitu den.

#### **3.4.1. Parte hartzaileekiko harremana**

Lehenik eta behin, aipatu nahiko nuke haur taldearekin kontaktatzeko aukera nire irakasle-lanbideak eman didala. Beraz, Mutrikuko eskolako ordezkapena luzerako zela jakin nuen momentuan, aurretik aipatutako ezaugarri soziolinguistikoak zirela eta ingurune aproposa zen nire ikerketa aurrera eramateko. Beraz, tutoreari egoeraren berri eman ondoren, ikerketa testuinguru horretan aurrera eraman ote zitekeen pentsatzen hasi ginen. Galdera asko genituen: lankidearen oniritzirik izango ote nuen, zuzendaritzaren baimena lortuko ote nuen, gurasoen aldetik onespena jasoko ote nuen, nola eta non egingo ziren grabaketak, COVID garaiko osasun-neurriak kontuan izanda posible izango ote zen eta abar.

Lankidearekin hitz egin ondoren, ikerketak interesa piztu zion eta ikerketarako bere laguntza osoa eskaini zidan. Ondoren, zuzendaritzaren baimena lortu beharra nuen ikerketarekin jarraitu nahi banuen. Zuzendaritzakoek ere, oztoporik ez zutela ikusten esan zidaten. Beraz, bi idazki prestatu nituen, batetik, zuzendaritzari zuzendutako idatzi formal bat (ikus A eranskina) eta bestetik, gurasoei zuzenduriko idatzi informatibo bat (ikus B eranskina). Azken idatzi honetan gurasoei grabaketekin ados ez bazeuden edo edozein zalantza bazuten, ahalik eta azkarren tutoreari abisatzeko eskatzen zitzaien. Gurasoei emandako epea pasa ondoren, guraso bakarraren ezezkoa jaso nuen eta honek ikergaia aurrera

jarraitzeko aukera eman zidan. Beraz, lankidearekin adostutako orduetan eskolara azaldu nintzen eta grabaketak aurrera eramanez nituen. Espazioari dagokionean, lasaia eta goxoa izateak ikerketa ahalbidetuko zuela pentsatzen nuen, haurra eroso egotea erraztuko baitzuen. Beraz, eskolako liburutegian egitea pentsatu nuen.

### **3.4.2. Materiala**

MAINek lau istorio eredu proposatzen ditu, eredu bakoitzean protagonista ezberdinak daude: txakurra, katua, txorikumeak eta antxumeak. Gainera, istorioetako kontakizunetan bi eredu ikus ditzakegu. Batetik, txorikumeak eta antxumeak protagonista diren istorioetan, protagonista nagusia etsai batek jan nahi du baina salbatzaile batek saihesten du ezbeharra. Bestetik, katua eta txakurra protagonista diren istorioetan harrapatzaile eta harrapakariaren kontakizunari mutiko bat erasten zaio. Mutiko honi objektu batek ihes egiten dio eta hau berreskuratzen dabilen bitartean protagonista nagusiak mutikoak lortutako objektuak jaten ditu.

Ikerketa hau egiteko txakurraren ipuina aukeratu dut, nire ustez, birkontakteta egiteko joko handiena eman ahal didan istorioa delako. Ipuinean zehar objektu desberdinak azaltzen dira eta horrek haurrak ipuinean zentratzera ekarriko zuela aurreikusi nuen. Txakurraren eta katuaren istorioa mutikoarenarekin paraleloan gertatzeak ere haurrei ipuinaren ildo jarraitzeko erraztasuna eman diela uste dut.

MAINen eredu originaletik nire bertsiora aldaketa batzuk proposatu ditut, aldaketa hauen helburua lortutako ekoizpenak ahalik eta emankorrenak izatea izan da. Baita ipuinaren kontakteta haurrengana ahalik eta errazen eta argien iristea ere. Aldaketa horietako bat ipuina kontatzeko bertsioa izan da, aldaketa handienak 3-4 irudiei dagokien narrazioan txertatu ditut. (Ikus C eranskina). Aldaketa horiek parte hartzaileengana ahalik eta gehien gerturatzeko helburuarekin egin ditut. Irakasle bezala ipuinak kontatzeko dudak esperientzia baliatuz bertsio originala oinarri hartuaz ekintzen zergatietan edo deskribapenetan zehaztu dut. Adibidez, bertsio originalean (1) esaldia dago eta nik baliatu dudak bertsioan ekintza bera era honetan kontatu dut (2):

- (1) *xaguak azkar-azkar alde egin zuen korrika eta txakurrak zuhaitzaren kontra jo zuen*

- (2) *xaguak txakurra bere atzetik zetorrela ikusi zuenean zuhaitzaren zulo txiki batetik alde egin zuen. Txakurra xaguaren atzetik joan zen, baina ez zen xagua sartu zen zulo txikitik sartzen eta zuhaitzaren kontra jo zuen.*

Ipuina kontatzeko orduan kontu handia izan behar da haur guztiei bertsio berdina kontatzeaz. Hasiera batean, pentsatu nuen aldagai hau errazteko eta sahiesteko asmoarekin, ipuinaren eredia grabatzea eta gero haur guztiei grabazio bera jartzea. Baina ideia hau berehala baztertu nuen, kontuan hartuz lau urteko haurrei zuzenduriko ipuin kontaketak zirela, ez zitzaidan oso egokia iruditzen. Batetik, haur hauen ipuin kontaketa emozioak eragin handia izaten du, hori ekintza edota tonu bidez lortu dezakegu. Baina grabazioa izatean bi aldagai hauek lortzen duten zirrara desagertuko litzake. Bestetik, ahotsaren presentzia ezak haurren kontzentrazio maila ahulduko luke. Beraz haur bakoitzari momentuan ipuina kontatzea erabaki dut, zailtasun eta kontzentrazio maila handiagoak eskatuko dizkidala onarturik.

### **3.4.3. Prozedura**

Atal honetan, datu bilketarako erabili den prozedura zehatza deskribatuko dut, hau da, nola jokatu dudan datuak jasotzeko orduan.

MAINEk irudiak, prozedurak eta ebaluazio txantiloireduak proposatzen ditu. Eredu hauek nire prozedura zehatza aurrera eramateko kontuan hartu ditut eta baita ondoren ekoizpenetako neurgaiak ikertzeko ere.

Gagarina et al. (2019) proposatzen duten jarraibideak jarraituz, hona hemen istorioa kontatzeko erabili den prozedura zehatza. Lehenik eta behin, haurra eta ni parean eseri gara bakoitza aulki batean. Haurra lasaitzeko eta giroan sartzeko momentuan egokiak diren honako galderak egin dizkiot, adibidez, *zer moduz goiza, zertan ibili zarete, gaur joan ahal zarete patiora edota antzeko galderak.* Ondoren, haurrari esan zaio: *Begira, hemen hiru gutun ditugu eta gutun bakoitzean ipuin bat dago. Zuk bat aukeratu eta tokatzen den ipuina kontatuko dizut.* Haurrak aukeratzen duen gutuna ireki eta istorioko sekuentziak atera ditut. Ipuina entzun ondoren haurraren egitekoa zein izango den aurreratzen zaio, pixkanaka birkontaketa egoerarako prestatzeko: *Aurrena nik kontatuko dizut ipuina eta zu adi adi egon ze gero zuk kontatu beharko didazu ipuina. Ea ba, hemen hasten da ipuina* (1 eta 2 irudiak seinalatuz). Haurrari istorioa kontatu

ondoren, irudiak zabaldu (ikus C eranskina), lehenengo biak haurrak bakarrik ikusteko moduan eta haurrari esan: *orain ipuina zuk kontatzea nahi dut. Irudiak ikusi eta saiatu ipuina ahalik eta ondoen kontatzen*. Haurrak lehen bi irudiak kontatzen amaitutakoan hurrengo biak zabaldu, 3-4 irudiak ikusteko moduan. Prozesua berriro ere egin, ipuina bukatu arte. Haurrak ipuina bukatzen duenean, zoriondu eta zeinen ondo egin duen esan.

Aproposa iruditzen zait azaltzea, MAINen ereduan ez dela inongo momentuan seinalizazioari buruzko aipamenik egiten. Niri garrantzitsua iruditu zait seinalizazio sartzeari haurren adina kontuan izanik. Seinalizazioak kontzentrazioarako eta ipuinaren ildoak jarraitzen lagunduko diela uste dut. Beraz, ipuinean zehar momentu zehatz batzuetan eskuaren seinalizazioarekin lagundu dut nire ekoizpena. Adibidez, 1-2 irudietan mutikoa azaltzen denean, oso atzean geratzen denez mutikoaren aipamena egitean mutikoaren irudia seinalatu dut.

MAIN tresna bezala erabiltzerako orduan bere egileek ipuina birkontatzeko bultzagarriak proposatzen dituzte, baita ipuinaren birkontaktetan helduak sahiestu behar dituen ekintza edo hitzak ere. Alderdi honi dagokionean, egileek proposatutako gomendioei jarraitu diet. Hona hemen bultzagarriei dagokienean jarraitu dudana prozedura. MAINen egileek argi adierazten dute kontu handiarekin erabili behar direla bultzagarriak ikertutako haur taldeen arteko desberdintasunak ez sortzeko. “Hitz egiteko bultzagarriak gutxienez 10 s itxaron ondoren eman behar dira, eta haurrari ezer ez esateko itxura hartutakoan bakarrik” (Gagarina et al. 2019: 3). “*bale...*”, “*ongi...*”, “*zure txanda...*” bezalako hitzak erabiliko dira. Ipuinaren kontaktetan haurra isilik geratzen bada honako bultzagarriak erabiliko dira: “*besterik?*”, “*segi*”, “*konta idazu gehiago*”, “*goazen ikustera zer gehiago gertatzen den ipuinean*”.

Bestalde, ipuinaren birkontaktetan helduak sahiestu beharrekoa da haurraren partez istorioa hastea eta haurra ipuina kontatzera animatzea proposatzen da. Era honetako galderak ez egitea proposatzen dute: “*zertan ari da hemen?*”, “*nor dabil korrika?*”, “*zer da hau?*”, “*zer/nor ikusten duzu irudian/marrazkian?*”, haurraren kontaktetan etenik edo eraginik ez sortzeko. Haurra bere bizipenen istorioa kontatzen hasi bada edo ipuinaren kontaktetan akatsak egin baditu ez dira inoiz zuzendu.



### 3.5. Neurgaiak

Ondorengo atal honetan datu bilketan lortutako haurren ekoizpenetan aztertu diren neurgaiak zein diren azalduko da. Neurgaiak zein diren deskribatzeak lanaren aurreikuspenak eta emaitzak zehaztea ahalbidetuko du.

#### 3.5.1 Ekoizpenaren luzera

Ekoizpenaren luzerari dagokionean, neurgai kuantitatiboa dugula esan dezakegu. Hau da, haurren ekoizpeneko hitz kopuruan jarri dugu arreta neurgai hau neurtzerako orduan. Haurren ekoizpenak ezaugarritzeko neurgai objektibo eta praktikoa da. Haurren ekoizpen bakoitzaren hitz kopuruak ekoizpenaren ikuspegi orokor bat ematen digute.

Helduak haurrari ematen dion bertsio ereduak (0 parte hartzailea) 116 hitz ditu (Ikus C eranskina). Haurren ekoizpenetan ondorengo hitz hauek ez dira kontatuko: hitz osatugabeak, *eztakit*, *ba*, *e* bezalako hitzak. Aldiz, behin bakarrik kontatuko dira errepikatutako hitzak.

#### 3.5.2 Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa

Neurgai hau, MAIN tresnaren erabileraren behaketa egiteko orduan egileen proposamenetako bat da. Konplexutasun narratiboak haurren ekoizpenen edukiari erreparatzeko aukera ematen digu. Hau da, haur bakoitzaren ekoizpenetan ipuinaren egitura nolakoa izan den jakiteko balio du.

Tresnaren egileek txantilo bat pentsatua dute, neurgai hau behatzeko. (Ikus, D eranskina). Txantilo honetan ipuinaren egitura hiru ataletan dago banatua:

- 1. gertaera: txakurra (gertaerako pertsonaiak: txakurra eta xagua).
- 2. gertaera: mutikoa (gertaerako pertsonaia: mutikoa)
- 3. gertaera: txakurra (gertaerako pertsonaia: txakurra).

Gainera, gertaera bakoitza beste azpi-atal hauetan dago banatua: BET abierako gertaera bezala, helburua, saiakera, emaitza eta BET erreakzio bezala. Azpi atal bakoitzean egoera hori deskribatu edo aipatzen duten esaldiak proposatzen dituzte, adibidez, helburua adierazteko: *Txakurrak sagua harrapatu/ lortu/ saguaren atzetik ibili nahi zuen / saguarekin jostatu nahi zuen*. Ikergai den haurraren ekoizpenean antzeko esaldiren bat aurkitzen badugu edo helburutzat jo

dezakegun hitzak aurkitzen baditugu, azpi atal honetan puntu bat jarri zaio. Horrela azpi atal guztien batura eginez, azken puntuazio bat lortu da. Gero, azken puntuazio hau erabili da hurren ekoizpenen arteko aldeak konparatzeko baremo bezala.

### **3.5.3 Ekoizpenaren osagai lexikoa**

Osagai lexikoari dagokionean, Barne Egoera adierazteko Terminoen (BET) erabilera ikertu da. Hau ere, MAIN tresnaren erabileraren behaketa proposamenetako bat da. Beraz, ez da hurrek ekoizpenetan erabiltzen duten hiztegi guztian arreta jarriko, baizik eta BETen erabilera nolako den. Azken batean hiztegia oso kontzeptu orokorra da eta alde horretatik BETekin orokortasun hori zehaztea izan da helburua. Istorioan zehar protagonista nagusien barne egoera adierazten duten termino edo aditzen erabilera aztertuko da. Barne Egoera adierazteko Terminoak ondorengo ataletan banatuak daude (Gagarina et al, 2019: 14) :

- Pertzepzio-terminoak: ikusi, entzun, sentitu, aditu, usaindu...
- Egoera psikologiko-terminoak: egarrিতта, goseak, nekatuta, minduta
- Konszientzia-terminoak: bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...
- Emozio-terminoak: triste, pozik, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrিতта...
- Pentsatu-aditzak: nahi, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...
- Esan-aditzak: esan, deitu, oihu egin, garraisi egin, buila atera, hots egin...

### **3.5.4 Ekoizpenaren osagai gramatikala**

Osagai gramatikalarri dagokionean, hurren euskarazko ekoizpenetan ergatibo kasuaren egokitasuna neurtuko da. Hau da, izen sintagmetako aditz iragankorretako subjektua adierazteko gramatika markaren erabilerari erreparatuko zaio. Nahiz eta gramatika kasuak euskaraz hiru izan, absolutibo, ergatiboa eta datiboa, nire ikerketa honetan ergatiboan jarriko da arreta. Euskaldunei arreta berezia ematen digu ergatiboaren zuzentasun ezak. Galdosen (2019) hitzak dira ondorengoak: “Euskaran bada zerbait hiztuni bereziki zaila egiten zaiena: ergatiboaren –k atzizkiaren erabilera. Euskararen irakaskuntza eremuan kezka handia sortzen duen gaia da ergatiboarena” (Galdos, 2019: 59).

Hona hemen azken urteetan ergatiboaren erabileraren kezka abiapuntutzat hartu dituzten hainbat ikerketa: Barreña et al. (2008), Galdos (2019), Ezeizabarrena et al. (2009).

Hori horrela ikergai den parte hartzaileen euskarazko ekoizpenetan ergatiboaren erabilera nolako den neurtuko da. Beste neurgaiekin batera ergatiboaren erabileraren zuzentasunak nire ikerketa galderak erantzuteko balio didalakoan aztertu dut. Hurrengo orrietan osagai gramatikala izena erabili beharrean, ergatiboaren erabilerarekin izendatuko da neurgai hau.

### **3.6. Aurreikuspenak**

Lan honetan oinarri izan den ikerketa galderak erantzuteko helburuarekin, ingurune experimental honetan eta aurrez aipaturiko tresna zehatza erabiliaz, honako aurreikuspenak espero dira, aurrez aipatutako neurgaien emaitzei dagokionean.

#### **3.6.1. Ekoizpenen luzera**

- a) **Hiztun izaera dutenen ekoizpenak luzeagoak izango dira.** Hiztun bezala deskribatu ditudan parte hartzaileek ekoiztutako ekoizpenak beste parte hartzaileenak baino luzeagoak izango dira.
- b) **Ekoizpenen luzera konplexutasun narratiboarekin bat etorriko da.** Hau da, ekoizpen luzea duten haurren ekoizpenek konplexutasun narratibo altua izango dute.
- c) **Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren luzeran.** Horrela, urte hasieran jaiotakoan, parte hartzaileetan zaharrenak direnen ekoizpenak hitz kopuru handiagoa izatea espero da urte amaieran jaiotako haurren ekoizpenetan baino.
- d) **Euskal profilak ekoizpenen luzeran eraginik ez izatea espero da.** Haurren lehen hizkuntzak ekoizpenen hitz kopuruan ez duela eragingo aurreikusten da.

#### **3.6.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa**

- a) **Hiztun izaera dutenen ekoizpenetan konplexutasun narratibo altua espero da.** Hiztun bezala deskribatuak izan diren haurren ekoizpenak konplexutasun narratibo altukoak izango direla aurreikusten da.

- b) **Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren konplexutasun narratiboan.** Haur zaharren ekoizpenetan haur gazteen ekoizpenetan baino konplexutasun narratibo handiagoa espero da.
- c) **Konplexutasun narratiboa ekoizpenen luzerarekin bat etorriko da.** Hau da, konplexutasun narratibo altua duten haurren ekoizpenek luzera handikoak izango dira.
- d) **Euskal profilaren arabera aldeak espero dira.** Haurren lehen hizkuntzak ekoizpenen konplexutasun narratiboan eragingo duela aurreikusten da. Hau da, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetan konplexutasun narratibo altua espero da, baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan puntuazio txikia espero da.

### 3.6.3. Ekoizpenaren osagai lexikoa

- a) **Hiztun izaera dutenen ekoizpenetan osagai lexiko ugaria espero da.** Hau da, hiztun bezala deskribatu ditudan haurren ekoizpenetan osagai lexiko ugaria aurreikusten da, hau da, BET erabilera handia.
- b) **Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren osagai lexikoan.** Haur zaharren ekoizpenetan haur gazteen ekoizpenetan baino osagai lexiko ugariagoa espero da.
- c) **Ekoizpenen osagai lexikoa konplexutasun narratibo eta ekoizpenen luzerarekin bat etorriko da.** BET erabilera ugaria izango den ekoizpenetan konplexutasun narratibo eta hitz kopuru handia aurreikusten dira.
- d) **Euskal profilaren arabera aldeak espero dira.** Haurren lehen hizkuntzak ekoizpenen osagai lexikoan eragingo duela aurreikusten da. Hau da, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetan BET erabilera handia espero da, baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan erabilera txikia espero da.

### 3.6.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera

- a) **Izaera hiztunak ez du eraginik izango osagai gramatikalaren erabileraren zuzentasunean.** Hau da, hiztun bezala deskribatu ditudan haurren ekoizpenetan ergatiboaren erabileran ez da zuzentasun handiagoa espero, haur ez hain hiztun edo isilen ekoizpenekin alderatuz gero.

- b) Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren osagai gramatikalean.** Haur zaharren ekoizpenetan haur gazteen ekoizpenetan baino ergatiboaren erabileran egokitasun handiagoa espero da.
- c) Euskal profilararen arabera aldeak espero dira.** Haurren lehen hizkuntzak ekoizpenen osagai gramatikalean eragingo duela aurreikusten da. Hau da, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetan ergatiboaren erabileraren egokitasuna espero da, baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan ergatiboaren erabileran ez da hain egokitasun handia espero.

### 3.7. Emaitzak

Aurreko ataletan aipatutako prozedura zehatza jarraituaz lortu den datu bilketa aztertu ondoren hona hemen grabaketetan lortu diren emaitzak.

#### 3.7.1. Ekoizpenen luzera

Hona hemen hurren ekoizpenen luzerari dagozkion emaitzak. 3. taulan ikus daitekeen bezala, lehen zutabean parte hartzaileen ezizenak daude eta bigarren zutabean, parte hartzaile bakoitzaren ekoizpenak zenbat hitz dituen. Hurrei emandako ereduaren hitz kopuru erdia da, gutxi gorabehera, hurren ekoizpenen luzeraren batz bestekoa.

3. taula: Ekoizpenetako hitz kopuruak	
Parte hartzailea	Hitz kopurua
0	116
1	46
2	67
3	100
4	95
5	57
6	73
7	61
8	132
9	40
10	74
11	40
12	87
13	55
14	53
15	70
16	34
<b>Bataz bestekoa:</b>	67-68 hitz

### 3.7.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa

Atal honetan haurren ekoizpenaren konplexutasun narratiboaren emaitzak ditugu ikusgai (Ikus D eranskina). 4. taularen lehen zutabearen parte hartzailearen ezizenak daude eta bigarren zutabearen konplexutasun narratiboaren emaitza adierazten duten zenbakia. Aipatzekoa da MAIN-en plantila ereduak dituen gehienezko puntuazioa 17 puntukoa dela. Beraz, birkontaketarako emandako ereduaren puntuazioaren erdia da haurren euskarazko ekoizpenen konplexutasun narratiboaren puntuazioa.

4. taula: Konplexutasun narratiboaren emaitzak	
Parte hartzailea	Konplexutasun narratiboaren puntuazioa
0	16
1	6
2	6
3	8
4	9
5	6
6	9
7	7
8	11
9	6
10	9
11	6
12	10
13	7
14	7
15	6
16	3
<b>Bataz bestekoa:</b>	7-8 puntu

### 3.7.3. Ekoizpenaren osagai lexikoa

Atal honetan hurren ekoizpenaren osagai lexikoaren emaitzak ditugu ikusgai. (Ikus E eranskina) 5. taularen lehen zutabearen parte hartzailearen ezizenak daude eta bigarren zutabetik seigarren zutabera BETen (Barne Egoera adierazteko Terminoak) azpialak daude. Azken zutabearen, BETen erabilera dago, hau da, guztira haur bakoitzak zenbat BET erabili dituen bere euskarazko ekoizpenean. Osagai lexikoa BET erabileraren bidez aztertua izan denez, termino bakoitzaren amaierako lerroan azpi atal bakoitzeko erabileraren batz bestekoa azaltzen da. Beraz, hurren ekoizpenetan konszientzia-termino eta esan aditzen erabilerarik ez dago. Orokorrean, pentsatu aditzen eta emozio terminoen erabilera ugaria da.

5. taula: BET emaitzak						
Parte hartzailea	Pertzep.T	Konz.T	Emoz.T	Pentsatu.A	Esan.A	Erabilera
0	ikusi	adi	triste, pozik, haserre	nahi, pentsatu, konturatu	esan	9
1	ikusi			nahi		2
2	ikusi		pozik			2
3	beira		pozik, triste	nahi		4
4				nahi, konturatu		2
5				nahi		1
6	ikusi		barrez			2
7	ikusi		pozik	nahi		3
8	ikusi		triste, pozik	nahi		4
9			pozik	konturatu		2
10	beira		pozik	nahi		3
11	ikusi					1
12	Ikusi, entzun		pozik	nahi		4
13			pozik, haserre, gustatu	nahi		4
14			pozik	nahi		2
15			pozik	nahi		2
16				nahi		1
<b>Bataz bestekoa:</b>	%56.25	%0	%68.75	%81.25	%0	2-3 hitz



### 3.7.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera

6. taularen lehen zutabeen, parte hartzaileen ezizenak ditugu eta ondorengo zutabeetan ergatiboaren erabilera aztertzeko erabili diren honako behaketa testuinguruak:

1. *-k* erabilera zuzena denean, hau da, ergatiboaren erabilera zuzena egiten duenean haurrak. Adibideak: *xagua txakurrak nahi zoon harrapau* (7:57), *saltxitxa txakurrak nahi zoon jan* (5:60), *mutilak ikusi zauan* (6:59)
2. *-k* erabiltzea espero den hitzak baina haurrak erabili ez duenean. Adibideak: *txakur bat kontra intzooan zuhatzarekin* (8:57), *globua ihes intzakon mutilai* (15:57), *txakurra sagu bat ikusi zoon* (1:62).
3. *-k* erabiltzea espero ez denean, baina haurrak erabili duenean. Adibideak: *globuak haizeak eraman intzion zuhaitzea* (12:56), *etzan konturau mutilak zeba* (15:57), *mutil batek globua ihes in zion* (1:62).

Ondoren, testuinguru hauetako adibideen batuketa bat egin da, haur bakoitzak bere ekoizpenean erabilitako *-k* kopurua zenbatuaz. Azkenik, haur bakoitzaren ekoizpenean aurkitu dudana ergatiboaren erabilera zuzenaren batz bestekoa agertzen da.

6. taula: Ergatiboaren erabilera					
Parte hartzaileak	<i>-k</i> erabilera zuzena	<i>-k</i> erabiltzea espero	<i>-k</i> erabiltzea ez espero	Guztira	Ergat. zuzen b.b
1	4	1	1	6	%67
2	1	3	0	4	%25
3	4	0	0	4	%100
4	3	2	0	5	%60
5	4	1	0	5	%80
6	4	1	0	5	%80
7	4	1	0	5	%80
8	4	1	0	5	%80
9	-	-	-	-	-
10	1	0	0	1	%100
11	-	-	-	-	-
12	1	0	1	2	%50
13	2	1	0	3	%67
14	1	4	0	5	%20
15	2	1	1	4	%50
16	4	0	0	4	%100
<b>Bataz beste</b>	2-3 hitz	1-2 hitz	0-1 hitz	4-5 hitz	%69

### 3.8. Eztabaida

Atal honetarako ikerketa galderak ber-hartu dira:

- a) 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan lehen hizkuntzak eraginik duen.
- b) 4-5 urteko haurren euskarazko ekoizpenetan testuinguru euskaldunak eraginik duen.

Ikerketa galdera hauek oinarrian izanik, aurreikuspen bakoitza bete den ala ez aztertu da. Neurgai bakoitzaren amaieran, ikerketa honen aurrekariekin euskal profilarren eraginaren inguruko emaitzak alderatu dira.

#### 3.8.1. Ekoizpenen luzera

##### a) Hitzun izaera dutenen ekoizpenak luzeenak izango dira

7. taularen lehen zutabean, izaera hitzuna bezala deskribatuak izan diren parte hartzaileen ezizenak daude eta bigarren zutabean, haur hauen ekoizpenen hitz kopurua. Aldiz, 8. taulako emaitzak parte hartzaile isilenak dira.

7. taula, parte hartzaile hitzuna	
Parte hartzailea	Hitz kopurua
2	67
4	95
8	132
10	74
13	55
15	70
<b>Bataz beste</b>	82-83 hitz

8. taula, parte hartzaile isila	
Parte hartzailea	Hitz kopurua
1	46
6	73
11	40
12	87
14	53
16	34
<b>Bataz beste</b>	55-56 hitz

Bi tauletako bataz bestekoak konparatuaz, parte hartzaile hitzunen ekoizpenetan 82-83 hitz erabili dira eta parte hartzaile isilen ekoizpenetan 55-56 hitz. Beraz, ikus daiteke ekoizpenen luzerari dagokion a) aurreikuspena betetzen dela.

##### b) Ekoizpenen luzera konplexutasun narratiboarekin bat etorriko da.

Bi muturreko parte hartzaileen emaitzei erreparatzen badiegu, batetik, 132 hitz eta 11 puntuko konplexutasun narratiboa duen ekoizpena. Bestetik, 34 hitz eta 3 puntuko konplexutasun narratiboa duen ekoizpena. Beraz, ekoizpenaren luzerari dagokion, b) aurreikuspena betetzen dela. Nahiz eta ekoizpen guztietan ez den hain argia bi neurgai hauen arteko

lotura. Adibidez, 70 hitz edo 40 hitz dituzten ekoizpenek 6 puntuko konplexutasun narratiboa dute.

**c) Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren luzeran.**

Bi muturreko parte hartzaileen emaitzei erreparatzen badiegu, batetik, 62 hilabete dituen haurraren ekoizpenak 46 hitz ditu eta bestetik, 51 hilabete dituzte haurren ekoizpenek 34 eta 70 hitz dituzte. Beraz, ekoizpenaren luzerari dagokion, c) aurreikuspena ez dela betetzen ikus daiteke. Baita taulako beste parte hartzaileen adina eta ekoizpenen luzeraren emaitzak alderatzen baditugu ere. Adibidez, hiru parte hartzaileek 57 hilabete dituzte baina beraien ekoizpenetako hitz kopuruan aldeak daude: 132, 61 eta 40. Bestalde, 61 hilabete dituen haurraren ekoizpenak 67 hitz ditu baina 51 hilabete dituen haurraren ekoizpenean 70 hitz topatzen ditugu.

**d) Euskal profilak ekoizpenen luzeran eraginik ez izatea espero da.**

9. taulan haur bakoitzaren euskal profila ekoiztutako ekoizpenen luzerarekin alderatuko da. Lehen zutabean, haurren ekoizpenen luzera dago, hitz kopuruaren arabera handitik txikira ordenatua eta bigarren zutabean, haur bakoitzaren euskal profila dago. Azken zutabean, euskal profil bakoitzaren batz bestekoak ditugu.

9. taula: euskal profila eta luzeraren emaitzak		
<b>Ekoizpenen luzera</b>	<b>Euskal profila</b>	<b>Bataz beste</b>
100	H1	66 hitz <100-34>
95	H1	
87	H1	
73	H1	
70	H1	
61	H1	
55	H1	
46	H1	
40	H1	
34	H1	
132	2H1	88hitza <132-40>
74	2H1	
40	2H1	
67	H2g	59hitza <53-67>
57	H2g	
53	H2g	

9. taulako emaitzak alderatzen baditugu, ikus daiteke ekoizpen luzeena egin duen haurraren euskal profila 2H1 euskara dela eta ekoizpen motzena egin duen haurraren euskal profila H1 euskara izan dela. Beste parte hartzaileen emaitzen batz bestekoetan erreparatzen badugu, euskal profil bakoitzaren barruan bi muturretako ekoizpen luzerak ditugu, adibidez, H2g 132 hitz eta 40 hitz dituen ekoizpenak daude. Beraz, ekoizpenaren luzerari dagokion d) aurreikuspena betetzen dela ikus daiteke.

Nire ikerketaren emaitzak ez datoz bat Barreña (2012) lanean aurkitu ziren emaitzekin. Non aipatzen den, 28-30 hilabete bitarteko haurren artean nabarmena dela euskara gutxien entzuten duten haurrekiko aldea, haurrek aldi horretan ekoiztiko esaldien luzera neurtzean.

Bi ikerketa hauen emaitzak alderatzean, adinaren aldagaia kontuan hartu beharrekoa iruditzen zait. Hau da, 2-3 urteko haurrek 4-5 urteko haurrek baino hartu eman gutxiago izan dute beraien lehen hizkuntza ez den hizkuntzarekin. Hau izan daiteke arrazoia bi ikerketa hauen arteko emaitzen arteko aldeak azaltzeko.

### 3.8.2. Ekoizpenaren konplexutasun narratiboa

#### a) Hiztun izaera dutenen haurren ekoizpenetan konplexutasun narratibo altua espero da.

10. taula: parte hartzaile hiza	
Parte hartzailea	Konplexutasun narratiboa
2	6
4	9
8	11
10	9
13	7
15	6
<b>Bataz beste</b>	8

11. taula: parte hartzaile isila	
Parte hartzailea	Konplexutasun narratiboa
1	6
6	9
11	6
12	10
14	7
16	3
<b>Bataz beste</b>	7.3

Bi tauletako bataz bestekoak konparatuaz, konplexutasun narratiboari dagokion c) aurreikuspena ez dela betetzen ikus daiteke.

#### b) Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren konplexutasun narratiboan.

Bi muturreko parte hartzaileen emaitzei erreparatzen badiegu, batetik, 62 hilabete dituen haurraren ekoizpenak 6 puntu ditu eta bestetik, 51

hilabete dituzten bi haurren ekoizpenek 3 eta 6 puntu. Beraz, konplexutasun narratiboari dagokion, b) aurreikuspena ez dela betetzen ikus daiteke. Baita beste parte hartzaileen adina eta ekoizpenen konplexutasun narratiboaren emaitzak alderatzen baditugu ere. Adibidez, hiru parte hartzaileek 57 hilabete dituzte baina beraien ekoizpenetako konplexutasun narratiboaren emaitzetan aldeak daude: 6,7 eta 11.

**c) Konplexutasun narratiboa ekoizpenen luzerarekin bat etorriko da. (3.8.1.b ataleko emaitzak ikusi)**

**d) Euskal profilaren arabera aldeak espero dira.**

12. taulan haur bakoitzaren euskal profila ekoiztutako ekoizpenetako konplexutasun narratiboaren emaitzekin alderatuko da. Lehen zutabean, haurren ekoizpenetako konplexutasun narratiboaren puntuazioa dago handitik txikira ordenatua eta bigarren zutabean, haur bakoitzaren euskal profila.

12. taula: konplexutasun narratiboa eta euskal profilaren emaitzak		
Konplexutasun narratiboa	Euskal profila	Bataz beste
10	H1	7-8 puntu <10-3>
9	H1	
9	H1	
8	H1	
7	H1	
7	H1	
6	H1	
6	H1	
6	H1	
3	H1	
11	2H1	8-9 puntu <11-6>
9	2H1	
6	2H1	
7	H2g	6-7 puntu <7-6>
6	H2g	
6	H2g	

Aurreikuspena gehiago zehaztuaz, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetan konplexutasun narratibo altua espero zen eta emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, H1 taldean, 7-8 puntukoa da eta 2H1 taldean, 8-9 puntukoa. Baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan

puntuazio txikia espero zen eta hemen ere emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, H2g euskara duten haurren ekoizpenetan 6-7 puntukoa da konplexutasun narratiboaren batz bestekoa. Beraz, esan daiteke d)aurreikuspenarekin espero ziren aldeak ez direla oso nabariak.

Batetik, nire emaitzak eta aurreikuspenak Manterola (2012) lanean topatu ziren emaitzekin bat egiten dute. Manterolaren lanean, 5 urterekin H1ean ez dute ikusi H2an baino gaitasun diskurtsibo aurreratuagorik. Bestetik, Almgren et al. (2008) lanean erakusten da 5-6 urte bitarteko haurrak narrazioak modu koherentean egituratzeko gai direla. Hain zuzen ere, H2 euskara duten haurrak H1 euskara duten haurrak adinako trebeak direla narrazioak egituratzeko garaian. Hori horrela, nire ikerketa honetan euskal profilararen araberrako aldeak ere ez dira oso nabarmenak izan ekoizpenen konplexutasun narratiboari dagokionean.

### 3.8.3. Ekoizpenen osagai lexikoa

#### a) Hitzun izaera dutenen ekoizpenetan osagai lexiko ugaria espero da.

13. taula: parte hartzaile hiztuna	
Parte hartzailea	BET erabilera
2	2
4	2
8	4
10	3
13	4
15	2
<b>Bataz beste</b>	2-3 hitz

14. taula: parte hartzaile isila	
Parte hartzailea	BET erabilera
1	2
6	2
11	1
12	3
14	2
16	1
<b>Bataz beste</b>	1-2 hitz

13. eta 14. tauletako BETen erabilitako hitz kopuruaren batz bestekoen arabera, ekoizpenen osagai lexikoari dagokion a) aurreikuspena betetzen dela ikus daiteke. Izan ere, aldagarritasunari begiratzean, parte hartzaile hiztunek <4-2> hitz erabiltzen dituzte eta isilek aldiz, <1-3> hitz.

#### b) Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren osagai lexikoan.

Bi muturreko parte hartzaileen emaitzei erreparatzen badiegu, batetik, 62 hilabete dituen haurraren ekoizpenak 2 hitz erabiltzen ditu eta 51 hilabete dituzten bi haurren ekoizpenetan 1 eta 2 hitz. Gainera, 60, 56 eta 51 hilabete dituzten haurren ekoizpenetan BET erabilera berdina da, haurren

ekoizpen hauetan hitz bakarria erabiltzen dute. Beste haurren ekoizpenetako BET erabilera konparatuaz ere, konturatuko gara, bi termino erabiltzen dituztela bai 51 hilabete dituen haurrak eta baita 61 hilabete dituenak ere Beraz, konplexutasun narratiboari dagokion, b) aurreikuspena ez dela betetzen ikus daiteke.

**c) Ekoizpenen osagai lexikoaren erabilera konplexutasun narratibo eta ekoizpenen luzerarekin bat etorriko da.**

Aurreikuspen hau alderatzen hasteko, BET erabilera handia erakutsi duten haurren ekoizpenetako kopuruak ikusiko ditugu. BET erabilera handiena lau hitzekoa izan da, haur hauen ekoizpenetan ondorengo emaitzak aurkitu dira, konplexutasun narratiboa 8, 11, 10 eta 7 puntukoa izan da. Eta ekoizpenetako hitz kopuruari dagokionean, 100, 132, 87 eta 55. Salbuespenak egon arren, konplexutasun narratibo puntuazio altuena duten haurren ekoizpenetan BET erabilera handiena ikusten dugu. Baita, ekoizpen luzera handiena duten haurren ekoizpenetan BET erabilera handiena ere. Beraz, c) aurreikuspena betetzen dela esan daiteke. Nahiz eta salbuespen batzuk egon, adibidez, haur baten ekoizpenean, konplexutasun narratiboa 9 puntukoa da eta ekoizpenaren luzera 95 hitzekoa, baina 2 BET erabili ditu bere ekoizpenean.

**d) Euskal profilaren arabera aldeak espero dira osagai lexikoaren erabileran.**

15. taulan haur bakoitzaren euskal profila ekoiztutako ekoizpenetan erabilitako osagai lexikoaren emaitzekin alderatuko da. Lehen zutabean, haurren ekoizpenetan erabilitako BETen hitz kopurua dago, handitik txikira ordenatua eta bigarren zutabean, haur bakoitzaren euskal profila. Azken zutabean, euskal profil bakoitzaren batz bestekoak ditugu.

15. taula: BET erabilera eta euskal profilaren emaitzak		
BETen erabilera	Euskal profila	Bataz beste
4	H1	2-3 hitz <4-1>
4	H1	
4	H1	
3	H1	
2	H1	
2	H1	
2	H1	
2	H1	
1	H1	
4	2H1	
3	2H1	
1	2H1	
2	H2g	1-2 hitz <2-1>
2	H2g	
1	H2g	

Aurreikuspena gehiago zehaztuaz, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetan BET erabilera handia espero zen eta emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, bi taldeetan 2-3 BET hitz erabili dira bataz beste. Baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan erabilera txikia espero zen eta hemen ere emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, H2g euskara duten haurren ekoizpenetan 1-2 BET hitz erabili dira bataz beste. Beraz, esan daiteke osagai lexikoari dagokion d) aurreikuspena betetzen dela.

Nire datu bilketaren bidez lortutako emaitzak bat datoz Barreña eta Garciaren (2009) lanean topatzen diren datuekin. Egile hauek haurrek darabilten lexikoa edo hiztegiaren tamainan alde hauek antzeman zituzten 16-30 hilabete bitarteko haurrengan: euskaldun elebakarrak 589 hitz, euskara maila handian entzun duten elebidunak 211 hitz, euskara maila ertainean entzun duten elebidunak 98 eta euskara maila txikian entzun duten elebidunak 52 hitz.



### 3.8.4. Ekoizpenetako ergatiboaren erabilera

- a) **Izaera hiztunak ez du eraginik izango osagai gramatikalaren erabileraren zuzentasunean.**

16. taula: parte hartzaile hiztuna	
Parte hartzailea	Erabilera
2	%25
4	%60
8	%80
10	%100
13	%67
15	%50
<b>Bataz beste</b>	<b>%64</b>

17. taula: parte hartzaile isila	
Parte hartzailea	Erabilera
1	%67
6	%80
11	-
12	%50
14	%20
16	%100
<b>Bataz beste</b>	<b>%63</b>

16. eta 17. tauletako ergatiboaren erabilera zuzenaren bataz bestekoaren arabera, ekoizpenetako ergatiboaren erabilerari dagokion a) aurreikuspena betezen dela ikus daiteke.

- b) **Haurren adinak eragina izango du haurren ekoizpenaren osagai gramatikalean.**

Bi muturreko parte hartzaileen emaitzei erreparatzen badiegu, batetik, 62 hilabete dituen haurren ekoizpenean %67koa da zuzentasuna eta 51 hilabete dituzten bi haurren ekoizpenetan %50 eta %100 dira bataz bestekoak. Gainera, 61, 56 eta 51 hilabete dituzten haurren ekoizpenetako ergatiboaren erabilera zuzena da kasu guztietan. Beraz, ergatiboaren erabilerari dagokion, b) aurreikuspena ez dela betetzen ikus daiteke.

- c) **Euskal profilararen arabera aldeak espero dira.**

18. taulan haur bakoitzaren euskal profila ekoiztutako ekoizpenetan erabilitako ergatiboaren zuzentasunaren bataz bestekoarekin alderatuko da. Lehen zutabean, haurren ekoizpenetako ergatiboaren erabilera zuzenaren bataz bestekoak daude, handitik txikira ordenatuak eta bigarren zutabean, haur bakoitzaren euskal profila. Azken zutabean, euskal profil bakoitzaren bataz bestekoak ditugu.

18. taula: euskal profila eta ergatiboaren erabilera zuzenaren batz besteko		
Ergatiboaren erabilera zuzena	Euskal profila	Bataz beste
% 100	H1	%72 <100-50>
% 100	H1	
%80	H1	
%80	H1	
%67	H1	
%67	H1	
%60	H1	
%50	H1	
%50	H1	
-	H1	
% 100	2H1	%90 <100-80>
%80	2H1	
-	2H1	
%80	H2g	%42 <80-20>
%25	H2g	
%20	H2g	

Aurreikuspena gehiago zehaztuaz, H1 edota 2H1 euskara duten haurren ekoizpenetako ergatiboaren erabilera zuzentasun handia espero zen eta emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, H1 %72 eta 2H1 %90 izanik. Baina H2g euskara duten haurren ekoizpenetan ergatiboaren zuzentasunaren erabilera txikia espero zen eta hemen ere emaitzek bat egiten dute aurreikuspenekin, H2g euskara duten haurren ekoizpenetan %42 izanik erabilera zuzena. Beraz, esan daiteke ergatiboaren erabilerari dagokion c) aurreikuspena betetzen dela.

Datu bilketa bidez lortutako haurren euskarazko ekoizpenetan ergatiboaren erabilera zuzentasunaren eta euskal profilararen arteko emaitzak bat datoz Ezeizabarrena et al. (2009) lanean topatu zuten emaitzekin. Egile hauen laginetan, bost urteko haurren artean izen-sintagmetako kasuak markatzea H1ekoek bereganatua dute baina ez H2gkoek.

#### **4.Ondorioak**

Kostaldeko herri euskaldun bateko 4-5urteko haurren MAIN birkontakteten laginaren azterketak, ondorengo aurreikuspenak egiaztatzeko aukera eman didate. Batetik, haurren hitz jarioaren arabera aurreikuspenei dagokionean, izaera hiztuna izateak haurren euskarazko ekoizpenetan aldagai garrantzitsua dela erakutsi dute emaitzek. Bestetik, adinaren arabera aurreikuspenak ez dira bete. Beraz, emaitzek erakutsi dute urtebeteko adin-tarteko aldea ez dela ikerketa honetan ekoizpenetan eragin dezakeen ezaugarria. Gainera, emaitzek erakutsi dute H1 eta 2H1 euskara duten haurren euskarazko ekoizpenak, H2g euskara duten haurren ekoizpenekin alderatuz ikertutako neurgaietan aldeak daudela. Aztertutako lagina txikia da eta ez du orokortasunerako sendotasunik, baina hala ere, aurkitutako aldeak iradokitzen dute euskal profilarren eragina ez dela oso handia. Honetaz ohartzeko, euskal profil ezberdineko haurren emaitzen arteko aldagarritasunak konparatu besterik ez dago.

Aldiz, egiaztatu gabe gelditu da ea ekoizpenen osagai lexikoaren erabilerak konplexutasun narratiboak eta ekoizpenen luzerak elkarren arteko harremanik baduten.

Beraz, ikerketa txiki hau burutu ondoren esan daiteke, MAIN tresna erabiliaz Mutriku herriko 4-5 urte bitarteko haur hauengan lehen hizkuntzak sortu ditzakeen desberdintasunak testuinguru soziolinguistiko euskaldunak berdindu ditzakeela, neurri batean behintzat.

## 5. Bibliografia

- Almgren, M., Beloki, L., Idiazabal, I. & Manterola, I. (2008), “Acquisition of Basque in successive bilingualism: data from oral storytelling”, in P. Siemund, & N. Kintana (ed.) *Language Contact and Contact Languages*. Amsterdam: John Benjamins. 239-259.
- Barreña, A., Ezeizabarrena, M.J., García, I. (2008). Entzundako hizkuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean. *ASJU*, 51, 106-127.
- Barreña, A. eta Garcia, I. (2009). Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebazarrengan eta elebidunengan. *Euskera*, 54, 603-638.
- Barreña, A. (2012). Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan, In. Askoren artean, *Hizkuntzaz jabetzen (0-6)*. XVI. Jardunaldiak. Bilbo: Mendebaldea Kultura Alkartea. 67-107.
- Eustat. d.g. *Euskal AEko datu estatistikoak: Mutriku*. [https://www.eustat.eus/municipal/datos\\_estadisticos/mutriku.html](https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/mutriku.html) <2021/02/09>
- Ezeizabarrena, M.J., Manterola, I. & Beloki, L. (2009), “Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika-kasuak haurren ipuin-kontaktetan”, *Euskera*, 54, 2-1. 639-681.
- Gagarina, N., Klop, D., Kunnari, S., Tantele, K., Välimaa, T., Bohnacker, U. & Walters, J. (2019). MAIN: Multilingual Assessment Instrument for Narratives – Revised. Materials for use. *ZAS Papers in Linguistics*, 63. Basque version. Translated and adapted by Ezeizabarrena, M.J. [https://www.leibniz-zas.de/fileadmin/media/Dokumente/ZASPiL/ZASPiL\\_63/MAIN\\_Basque\\_2020\\_New.pdf](https://www.leibniz-zas.de/fileadmin/media/Dokumente/ZASPiL/ZASPiL_63/MAIN_Basque_2020_New.pdf)
- Galdos, N. (2019). Ergatiboaren erabileran argibide eskariak duten eragina. In *Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulua bilduma. Giza zientziak eta Arteak*. UEU. Baiona: III. Ikergazte, 59-69.
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2020a). *Jatorri atzerritarreko biztanleria udalerrira jatorriko herrialde nagusien arabera. 2020. urtea: Mutriku*. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020/municipios\\_pais\\_origen\\_2020\\_eus.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020/municipios_pais_origen_2020_eus.pdf) <2021/04/17>
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2020b). *Jatorri atzerritarreko biztanleriaren portzentajea EAEko udalerrien arabera. 2020. urtea:*

Mutriku. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020/municipios\\_porcent\\_extranj\\_2020\\_eus.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020/municipios_porcent_extranj_2020_eus.pdf) <2021/04/17>

Manterola, I. (2012). Diskurtso gaitasunen jabekuntza euskara H2 duten haurren: Ipuin kontaketa aztergai, In. Askoren artean, *Hizkuntzaz jabetzen* (0-6). XVI. Jardunaldiak. Bilbo: Mendebaldea Kultura Alkartea. 109-157.

Soziolinguistika Klusterra. (2011). Euskararen Datu Soziolinguistikoen Biltegia (EDB): *Hizkuntz gaitasuna*. Mutriku. <http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=orriak&zo=58> <2021/02/09>

Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, UEMA eta Tolosaldeko udalerriak 2015, 2016 eta 2017*: Andoain. <https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2017/11/Kale-neurketa2017-TXOSTENA.pdf>

## 6. Eranskinak

### A. Zuzendaritzari zuzendutako baimena

Zuzendaritza:

Idatzi honen bidez nire ikerketaren berri eman nahi dizuet. Momentu hauetan, Euskal Ikasketak graduaren Gradu Amaierako Lana burutzen ari naiz, UPV/EHUko X<sup>1</sup> irakaslearen zuzendaritzapean. *Haurren Hizkuntz Garapena* arloa aukeratu nuen lana garatzeko eta ondoren jakin nuen x lanean hasiko nintzela, denbora nahiko luzez. Beraz, bi lanak elkartzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Hau horrela, x gelan nire ikerketa aurrera eramateko **baimena eskatzen** dizuet. Ikerketaren izenburua *x* izango da.

Ikerketaren helburua, 4-5 urteko haurren ekoizpen lagin txiki bat jaso eta aztertzea izango da. Horretarako, ipuin-kontakteta **prozedura** baliatuko dut, haurrei irudi batzuetako istorioa azaldu, kontatzeko eskatu eta grabatzean datzana. Grabaketak banakakoak izango dira eta X hasteko asmoa dut. Nire ikerketaren oinarria grabatutako kontakteten azterketa zehatza izango da.

Ikerketa honetarako ezinbestekoa da haurren partehartzea, eta hori dela eta gurasoei bidaliko zaien idazkian datu bilketan haurraren parte-hartzea onartzea eskatzen zaie. Jasotako datuak ikerketako helburu zehatzetarako bakarrik erabiliko dira eta parte-hartzaileen datu pertsonalak ez dira beste inorekin ezertarako partekatuko.

Ikerketa aurrera eramana ahal izateko, lehenik eta behin nire lankidea den *x* oniritzia eskaturik, zuengana zuzentzen naiz **zuen baimena eta oniritzia jasotzeko**. Gurasoei ere datu bilketaren berri ematen zaien idazkia bidaliko zaie. Bertan grabaketekin ados ez badaude tutoreari jakinarazteko eskatzen zaie edo edozein zalantza badute abisatzeko. Grabazioak X hasteko epea jarri dut, horrela gurasoei zalantzak edo desadostasunak plazaratzeko denbora bat emateko. Gurasoei bidalitako idatzian aipatzen zaie

desadostasunik ez badute helarazten, grabaketak egiteko oniritzia ematen dutela ulertuko dela.

Ipuin kontaktetak egiteko nire lankidea haurrekin dagoen orduak erabiltzea pentsatu dut, taldea tutorearekin dagoen bitartean, nik haurrak banaka beste gelara batera eramanez. Bertan ipuin kontaktetaren grabazioa eramango da aurrera. Gero grabazio guztiak bildu eta datu bilketarekin ikerketa aurrera eramatea da asmoa.

Zuen laguntzarengatik aldezturik eskerrak emanaz agurtzen zaituztet,

---

<sup>1</sup> Testu hauetako X-ek baimen hauetako informazio zehatza (izenak, datak eta abar) adierazten dutelako ezabatuak izan dira.

## B. Gurasoei zuzenduriko baimena

Familia agurgarriak:

Idazki honekin, X izenburu duen ikerketarako datu-bilketaren berri emateko jotzen dugu zuengana. Ikerketa hau ni, X garatzen ari naizen ikasketetako Gradu Amaierako Lanaren parte izango da, UPV/EHUko X irakaslearen zuzendaritzapean.

Ikerketaren helburua, 4-5 urteko haurren ekoizpen lagin txiki bat jaso eta aztertzea izango da. Horretarako, ipuin-kontaketa **prozedura** baliatuko dut, haurrei irudi batzuetako istorioa azaldu, kontatzeko eskatu eta grabatzean datzana. Grabaketak banakakoak izango dira, X hasteko asmoa dut. Nire ikerketaren oinarria grabatutako kontaketen azterketa zehatza izango da.

Ikerketa honetarako ezinbestekoa da haurren partehartzea, eta hori dela eta asko eskertuko dizut zure haurraren parte-hartzea onartzea. Jasotako datuak ikerketako helburu zehatzetarako bakarrik erabiliko dira eta parte-hartzaileen datu pertsonalak ez dira beste inorekin ezertarako partekatuko. Datu bilketarako x ikastolaren baimena ere badut.

Ipuin kontaketen grabazioekin ez bazaude ados edo edozein zalantza baduzu idatzi mesedez, X tutoreari. Tutoreari ez bazaio grabazioak egiteko desadostasunik aipatzen, grabaketak aurrera eramateko zuen oniritzia dugula ulertuko da.

Zuen laguntzarengatik alde zuretik eskerrak emanaz agurtzen zaituztegu,

Estimadas familias:

Mediante este escrito nos dirigimos a ustedes para informarles sobre la recolección de datos del estudio, que se titula X. Este estudio lo estoy haciendo yo, X, bajo la dirección de X profesora de UPV/EHU. Este proyecto es parte del Trabajo de Fin de Grado de los estudios que estoy cursando.

El objetivo de este estudio es recoger y analizar una muestra pequeña de las producciones de niños de 4-5 años. Para ello, se empleará como **método** las narraciones de los cuentos, que consiste en relatar a los niños el cuento de unas imágenes, pedirles que lo cuenten ellos y grabar estas narraciones. Las grabaciones serán individuales y se darán a cabo X. Tengo la intención de empezar el X. La base de mi estudio será el análisis preciso de las narraciones grabadas.

Para este estudio es imprescindible la participación de los niños/niñas, por ello, agradecería mucho la aceptación de la participación de tu hijo/hija. Los datos recogidos se emplearán únicamente para fines concretos del estudio y los datos personales de los participantes no se compartirán para nada con nadie. Para la recogida de los datos cuento con la autorización de X.

Si no estás de acuerdo con las grabaciones de las narraciones o si tienes cualquier duda notifica al tutor para el X. Si no se le comenta ningún desacuerdo al tutor se da por hecho que tenemos la aprobación de vosotros para llevar a cabo las grabaciones.


Muy agradecidas por su colaboración, les saludamos, atentamente

**C. Eranskina: erabilitako ipuin eredua eta irudia.**

1/2 irudiak: Egun batean txakur jostalari batek xagu gris bat ikusi zuen zuhaitz baten ondoan geldirik. Orduan salto bat egin zuen xagua harrapatu nahi zuelako. Bitartean, mutil bat poz-pozik zetorren, eskuetan globo bat eta saltxitxaz beteriko poltsa bat zituen.

3/4 irudiak: Xaguak txakurra bere atzetik zetorrela ikusi zuenean azkar azkar alde egin zuen zuhaitzaren zulo txiki batetik. Txakurra xaguaren atzetik joan zenean, baina ez zen xagua sartu zen zulo txikitik sartzen eta zuhaitzaren kontra jo eta min handia hartu zuen. Txakurra haserretu egin zen xaguak ihes egin ziolako eta zuhaitzarekin min hartu zuelako. Mutikoa txakurrari eta xaguari begira adi adi zegoen bitartean, globoak alde egin zion eskuetatik. Mutikoa oso triste jarri zen eta esan zuen: “Oh, nire globoa, ihes egin dit!”. Globoa zuhaitzaren gainean gelditu zen eta mutikoa globoari begira gelditu zen, ea nola harrapatu ahal zuen pentsatzen. Bitartean, txakurrak mutikoaren saltxitxaz beteriko poltsa ikusi zuen lurrean eta pentsatu zuen: “hara, ze goxoa, saltxitxa bat harrapatuko diot”

5/6 irudia: Mutikoa globoari tiraka hasi zen, zuhatzetik jaitsi nahi baitzuen globoa. Mutikoa globoa jetsi nahian zebilenez ez zen konturatu txakurrak saltxitxak harrapatu zizkiola. Amaieran, txakurra pozik zegoen saltxitxa oso goxoak jaten ari zelako eta mutikoa ere pozik zegoen azkenean zuhatzetik globoa jeistea lortu zuelako. *Eta hemen amaitzen da ipuina.*



Gagarina, N., Klop, D., Kunnari, S., Tantele, K., Vålmaa, T., Bohnacker, U. & Walters, J. (2019). MAIN: Multilingual Assessment Instrument for Narratives – Revised. Materials for use. ZAS Papers in Linguistics, 63. Basque version. Translated and adapted by Ezeizabarrena, M.J.



## D. Konplexutasun narratiboaren emaitzen plantillak

Puntuazio-orria. Txakurraren Ipuina. Ipuinaren Egitura  
(Narrazio osoena (O), erdibideko narrazioa (Erdi) eta narrazio eskasaren  
(Eskas) puntuazioak bildu dira ondorengo erantzun-orrian)

		<b>Erantzun zuzenen adibideak</b>	<b>Puntuak</b>		
<b>A1.</b>	Hasiera	Erreferentziako denbora edota tokia, adz. behin batean/ baten behin/ behin omen zen... Baso baten/ parke baten/ belaze batean/ zuhatz baten ondoan/ zuhaitz baten azpian/ bide ertzean...	O (8:57)	Erdi (1: 62)	Eskas (16: 51)
			1	0	0
1. gertaera: Txakurra (Gertaerako pertsonaiak: txakurra eta xagua)					
<b>A2.</b>	BET abierako gertaera bezala	<b>Txakurra</b> jostalaria zen/ txakurrak jakinmina zuen <b>Txakurrak</b> sagu bat ikusi zuen	0	1	0
<b>A3.</b>	Helburua	<b>Txakurrak</b> sagua harrapatu/ lortu/ sagua ren atzetik ibili nahi zuen / saguarekin jostatu nahi zuen ADITZA (harrapatu, lortu, jolastu)-tzeko	1	1	1
<b>A4.</b>	Saiakera	<b>Txakurrak</b> salto egin zuen <b>Txakurra(k)</b> harrapatu / harrapatzen hasi <b>Txakurra</b> saiatu zen ADITZA (harrapatu, lortu, heldu, ehizatu...)-tzen	0	0	0
<b>A5.</b>	Emaitza	<b>Txakurra(k)</b> kolpea hartu zuen buruan / zuhaitzaren kontra jo zuen/ zuhaitzarekin txokatu zen/ ez zuen sagua lortu/ ez zen nahikoa azkarra izan <b>Sagua(k)</b> ihes egin zuen/ zuhaitzaren atzeko aldera joan zen azkarregia zen	1	1	0
<b>A6.</b>	BET erreakzio bezala	<b>Txakurra(k)</b> pena hartu zuen/ haserretu egin zen/ mina hartu zuen <b>Sagua</b> pozik / alai/ lasaituta zegoen	0	0	0
2. gertaera: Mutikoa (Gertaerako pertsonaia: Mutikoa)					
<b>A7.</b>	BET abierako gertaera bezala	<b>Mutikoa</b> triste zegoen/ bere puxika/ globoa rekin kezkatuta <b>Mutikoak</b> puxika/ globoa zuhaitz (gain)ean ikusi zuen	0	0	0
<b>A8.</b>	Helburua	<b>Mutikoa(k)</b> puxika/ globoa berreskuratzea erabaki/ nahi zuen	1	0	0

		ADITZA (lortu, berreskuratu)-tzeko			
<b>A9.</b>	Saiakera	<b>Mutikoa</b> puxika/ globoa zuhaitz gainetik jaisteko puxika/ globoari tiraka aritu/ saiatu zen <b>Mutikoak</b> puxika/ globoa hartzeko salto egin zuen/ besoa luzatu zuen/ (baloia) iritsi zuen/ (zuhaitzera) igo zen	1	0	1
<b>A10.</b>	Emaizta	<b>Mutikoak</b> puxika/ globoa berreskuratu zuen <b>Puxika/ Globoa</b> leku seguruan zegoen	1	1	0
<b>A11.</b>	BET erreakzio bezala	<b>Mutikoa</b> pozik/ alai/ gustura/ lasaituta (Puxika/ Globoa lortuta / berreskuratuta)	1	0	0
Gertaera 3: Txakurra (Gertaerako pertsonaia: Txakurra)					
<b>A12.</b>	BET abierako gertaera bezala	<b>Txakurra(k)</b> saltxitxak ikusi/ antzeman zituen (poltsan)/ saltxitxekin konturatu zen <b>Txakurra(ri)</b> gosetuta zegoen / saltxitxekin interesatuta zegoen / saltxitxazalea zen/ saltxitxak gustatzen zitzaizkion	1	1	0
<b>A13.</b>	Helburua	<b>Txakurrak</b> saltxitak lortu/ eskuratu/ jan/ eduki/ ostu/ lapurtu nahi zituen/ lortzea erabaki zuen ADITZA (jan, lortu)-tzeko	1	0	0
<b>A14.</b>	Saiakera	<b>Txakurra</b> saltxitxei heltzen/ tiraka/ saltxitxak hartzen/ harrapatzen/ ohostutzen/ ebasten ari zen <b>Txakurrak</b> saltxitxak (poltsatik ateratzeko) tiraka/ saltxitxei heldu / saltxitxak poltsatik atera zituen <b>Txakurra</b> ADITZA (lortu, hartu)-tzen saiatu zen	0	0	0
<b>A15.</b>	Emaizta	<b>Txakurrak</b> saltxitxak jan / lortu zituen	1	1	1
<b>A16.</b>	BET erreakzio bezala	<b>Txakurra</b> gustura/ pozik/ alai/ zegoen / <b>txakurrari</b> gosea kendu zitzaion	1	0	0
<b>A17.</b>	<b>Puntuak guztira 17tik:</b>		11	6	3

## E. Eranskina. BET erabileraren emaitzak

### BET erabilera ugaria (3:61)

**Pertzepzio-terminoak** adz.: ikusi, entzun, **beira**, sentitu, aditu, usaindu...  
**Egoera psikologiko-terminoak** adz.: egarrituta, goseak, nekatuta, minduta  
**Konszientzia-terminoak** adz.: bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...  
**Emozio-terminoak** adz.: **triste**, **pozik**, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrituta...  
**Pentsatu-aditzak** adz.: **nahi**, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...  
**Esan-aditzak** adz.: esan, deitu, oihu egin, garraisi egin, buila atera, hots egin

### BET erdibideko erabilera (2:61)

**Pertzepzio-terminoak** adz.: **ikusi**, entzun, sentitu, aditu, usaindu...  
**Egoera psikologiko-terminoak** adz.: egarrituta, goseak, nekatuta, minduta  
**Konszientzia-terminoak** adz.: bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...  
**Emozio-terminoak** adz.: triste, **pozik**, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrituta...  
**Pentsatu-aditzak** adz.: nahi, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...  
**Esan-aditzak** adz.: esan, deitu, oihu egin, garraisi egin, buila atera, hots egin

### BET erabilera eskasa (5:60)

**Pertzepzio-terminoak** adz.: ikusi, entzun, sentitu, aditu, usaindu...  
**Egoera psikologiko-terminoak** adz.: egarrituta, goseak, nekatuta, minduta  
**Konszientzia-terminoak** adz.: bizirik, esna(tuta), adi, argi egon...  
**Emozio-terminoak** adz.: triste, **pozik**, haserre, kezkatuta, ikaratuta, etsita, beldurtuta, harro, alai, seguru (sentituz), lasai, harrituta...  
**Pentsatu-aditzak** adz.: **nahi**, pentsatu, uste, jakin, ahaztu, erabaki, sinestu, plana izan/ egin ...  
**Esan-aditzak** adz.: esan, deitu, oihu egin, garraisi egin, buila atera, hots egin